

Joan Mari Torrealdai gabeko JAKIN aldizkariaren lehenengo zenbakia da honako hau azken berrogeita hamazazpi urteetan. Torrealdai joan zaigu. Eta haren itzala handitzen eta luzatzen ikusi dugu heriotza osteko erreakzio uholdean. Nork ez zuen ezagutzen. Nor ez zuen berak ezagutzen. Zenbat eremutan ez ote zuen jardun harremanak josten, ikerketan sakontzen, egitasmoak ontzen, egiturak sortzen, estrategiak eta bideak zedarritzen. Eta, bereziki, iparra markatzen. Misioa eta bisioa. Biak zituen argi.

Denok geratu gara umezurtz, leku askotakoak. Zer esan, Jakinekook. Azken unera arte aktibo izan dugu Torrealdai, eta berandu baino lehen ikusiko ditugu argitaratuta idatzi zituen azkenak. Horren aurretik, baina, JAKINEN hurrengo zenbaki monografikoa eskainiko diogu, eta saiatuko gara hark egindako lana eta utzitako ondarea merezi duen lekuan jartzen.

Torrealdai uztailaren 31n joan zitzaigun, zenbaki honek biltzen duen Jakin Jardunaldia egin eta bi astera. Pandemiaren erdian eta isolamendutik irten berritan. Eta, ezinbestean, horixe bera izan dugu aurtengo Jakin Jardunaldiaren gaia. Gainera etorri zaigun pandemiari eta ekarri duen distopiari leku egitea sahiestezina zitzaigun, mundu berriak –eta ahal bada bizigarriak– bilatzen hasteko. Horregatik, *Pandemiak, distopiak eta mundu berriak* izenburuko jardunaldia egin genuen Usurbilen, UEUren eta Usurbilgo Udalaren lankidetzarekin. Usurbilen eta aurrez aurre, fisikoki elkarrengana biltzea inoiz baino garrantzitsuagoa dela pentsatuta. Bertako hitzaldi guztien ikus-entzunezkoak Jakinen atari digitalean dituzue.

Eskuetan dugun zenbakian, Usurbilen emandako hitzaldien artikuluak eta gehiago daude. Mario Zubiagak zabaldu zuen saioa eta zabaltzen du zenbaki hau ere, pandemiak agerian jarri duen errealitatea eta ekarri dituen ondorio politikoak aztertuz. Medikuntzaren filosofiatik segi dio Arantza Etxeberriak pandemiaren azterketari, gaitzaren eta osasunaren eta banakoaren eta kolektiboaren arteko harremanak aletzen. Eko-soziologiaren talaiatik begiratzen dio Joseba Azkarraga Etxagibelek pandemiari, gertagarri zelakoan, eta aurrera egiteko atzera egin beharko dugula arrazoituz. Gezurra ere libre dabil pandemiaren haize nahasietan, eta egia-ostean

arriskuez dihardu Irati Zubiak. Azken artikulua Joseba Gabilondorena da. Konplexutasunaren aldarri eginez, negazionismoaren defentsa bat dakar forma politiko emankor bat izan daitekeelakoan.

Distopia batera etorriak garela-eta, Harkaitz Canori eskatu diogu etorkizuna begitandu dezan, eta *Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)* fikzio distopikoa sortu du Jakinentzat. Unai Iturriagak, zientzia fikziozko komiki klasikoan estiloan, kontrazalera ekarri du Canok proposatzen digun mundu berria.

Bestelakoan, ohikoa denez, *Egunen gurpilean* sailean, Itziar Ugarte, Jaime Altuna eta Alba Garmendia, hurrenez hurren, kulturaz, hizkuntzaz eta pentsamenduaz ari zaizkigu.